


Hizkuntzen naturaltasuna

Hizkuntzek, herri bakoitzaren naturaltasuna daramate bere sustraietatik. Horretxegatik behar dute errespetagarriak izan. Europako Batasunaren Batzordeak "Hizkuntzen Urtea" izendatu du 2001garrena, hizkuntza ugartasuna Europako ondare aberastasunik funtsezkoenetakoa delako eta etorkizunerako ere hala izan beharrezkoa jarraitu nahian. Gainera, hizkuntzak errespetatzea bake biderako beharrezkotzat jotzen bai da.

Euskara, zalantzarik gabe, gure herriaren nortasunik jatorrena dugu. Aldi berean, preindoeuropearra delarik, hau da: indoeuropearren aurretikotzat hemen sustraitua, Europako hizkuntzarik zaharrena edo zaharrenetakoa dugunez. Eta, bai Espainian eta bai Frantzian, bertako hizkuntzarik zaharrena. Horregatik esan zuen Antonio Tovar hizkuntzalari handiak: "Es una lengua prehistórica, una lengua profundamente arraigada en el suelo, y es la única que se ha conservado al oeste de Eurasia desde la conquista de nuestro continente por los indoeuropeos".

Besteak beste hori ere kontutan harturik argitaratu herri dut *Giza eskubideen inguruan, En torno a los derechos humanos* (2000) izena daraman liburua. Giza eskubideen gai guziak ikutzen ditut bertan, baina euskarari dagokion tokia lasai emanaz.

Giza eskubideen inguruan deritzan nire liburua aipatzeaz, oroitu beharrezkoa iruditzen zait hitzaurrearen 10-11. orrialdeetan, Ernest Lluch zenaren



◀ Giza eskubideak sakon jorratzen dira liburu honetan.

jokabide zintzoari buruzkoa, norengandik jaso nituen euskararen aldeko zenbait eritzi Europa Batasuneko Kontseiluak hizkuntza guttituen alde onartu zuen Eurogutunaren berri ematean. Egia esan, ulert ezinezkoa iruditzen zait beraien ustez gure herriaren alde indarkeriz dabiltzanak Ernest Lluch bezalako gizonari bizia kentzea. Hiltzaile horiek, haren beste egin ote dute euskararen alde? Gainera, inork ezegatik ez du beste bati bizia kentzeko eskubiderik. Ideia guziak dira errespetagarriak eta hark zioen bezala, elkarriketaren bidezko arra-



Menaje
Industrial
Electricidad
Copia de llaves
Tornillería inoxidable

MARINEL

Burdindegia
Ferretería

Beñat Etxepare 12
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

Jon Alzaga

- Urdai azpikoak
- Hestekiak
- Gaztak
- Foies
- Edariak

San Pedro kalea 45 Tel. 943 64 44 70
20280 HONDARRIBIA

zoiz jokatu behar dugu. Hala izan ezik, ustez gure herriaren alde dabilzan horiek, mundu guziaren aurrean kalte besterik ez digute egiten. Zeren, indarkeriz dabilzan basati horiekin ez goaz inora.

2001. urtean, Hizkuntzen Urtearen inguruan, Europaren aberastasuna agertzeaz, era askotariko arrazoiak erabiliko omen dira, bertako biztanleei jabearazteko eta, hizkuntzen ikasketak bizitza osoan bultzatu nahian. Horrez gainera, hizkuntzen ikasirakaskuntzari buruzko informazio guziak batu eta zabalkundez eskaintza oparoa izango omen da bere egitekoa.

Asmo horiek kontuan izanik, Hondarribian, besteak beste, oroitzekoak dira Klaudio Sagartzazu "Satarka" eta Fernando Artola "Bordari" bezalako gizonak goraiatzea, zeren euskarak eskoletan tokirik ez zuen garai haietan hainbeste idazlan bikain burutu bai zituzten.

Gogoangarriak dira Satarkaren *Txinpartak* (1922), *Intza begietan* (1957) eta *Ezti-tantak* (1996). Hiru liburuok batean bildurik argitalpen bat merezi dute. Horrez gainera, ez legoke gaizki bere anai Dionisio Sagartzazu zenak aspaldiko *Zeruko Argia* aldizkari hartan argitara eman zituen "Nekazari gaiak" bildurik liburu batean azaltzea.

Bordarik, hil aurretxoan, 1982an ean zizkigun Bakoitzak berea izenburuz bi liburu mardul, bata hizlaur eta bestea olerkiz. Eta bere anai Don Rafaelekin

burutu zuen *Aritz beraren adarrak* (1982). Horiegatik, ideia ona izan zuen Hondarribiko Udalak 2000ko azaroan omenaldi bat eskaintzea, hitzaldiz eta jaiote-txean oroitarria jarritz. Gainera, gizon zintzoak eredu-garriak direnez, egokia iruditu zitzaidan *Hondarribia* aldizkariaren ale berezi bat berari buruz eskaintzea.

Lan horiek ezaguturik ez ote dugu baztertuko hizkuntzak politizatzea? Zeren, izan ere, berez naturala denak ez du behar politizatzerik, bizitzen jarraitzeko laguntasuna eman baizik.

2001. urtea har genezake eredutzat, hizkuntza zabalago eratuak ezagutzea eta errespetatzea, aldi berean gurea bezelako txikiagoak errespetaraziz. Hemen ez da inor eta ezer sobra. Suizako konstituzioa hartu behar genuke eredu. Guziok bai gera Europaren osagarritzko parte bat.

Asmo hori izan genuen 1961ean Eibarko ikastolak euskaran oinarriturik, hamar-hamaika urterako zabalduagoa zen gaztelera ere jakin beharrez eta asignaturaz inglesa ere sartuaz. Zeren, azken hizkuntza hau teknika, zientzia eta mundu zabaleko merkataritzarako hain beharrezkoa ikusten genuelako.

Gainera, kontutan izan, hizkuntza soil bat erabil-tzeak itsutasuna dakarrela eta bi edo hiru hizkuntza jakiteak mundu zabalari begira irekiagoak egiten gaituela.

JUAN SAN MARTIN

EROSLE

CHARTER SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 HONDARRIBIA

DISCOTECA
TRUCK
HONDARRIBIA
Foru Kalea

Pub
Kaizar
Almirante Alonso Kalea, 12